

# GORKA KARAPETO ETA UNAI MENDIA EIGERREKO IPARREAN "MAGIC MUSHROOM" BIDETIK

## TESTU ETA ARGAZKIAK



Ioritz Gonzalez Lertxundi  
(Azkoitia, 1980)

Biologian lizentziatua eta irakaslea. Kirol eskalada zale amorratua, 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Eskaladaren iguruan ikerketan aritu izan da. Pyrenaicako erredakzioko kidea da.


Iruñean bizilagun den bikoteak kareharrizko erraldoiaren iparreko horma eskalatzea erdietsi zuen abuztuaren 17an. Bihatz eskalada gunean izan gara eskalatzailerik azpeitiarrarekin egindako eskaladaren xehetasunak zehazteko asmoz





Eiger mendia (3967 m) Suitzako alpeetan kokaturik dago, Berna kantonamendua-ren hegoaldean zehazki. 2001 urtean gizatariaren ondare izendatu zuten eta Jungfrau-Aletsch-Bietschhorn naturgune babestuaren zati da. Mendiaren iparraldeko horma mitikoa Grindelwald haranaren gainean altxatzen da, eta hegoaldeko aurpegia Jungfrau-Aletsch eskualderantz begira dago, Alpeetako glaziar handienetako batek estaltzen duelarik.

Geologikoki, Eiger mendiak baditu bere berezitasunak. Harri metamorfikoz eta granitoz eratu ondoren (orain dela 450-300 milioi urte, periodo Siluriko eta Karboniferoen artean), itsaso tropikal batek estali eta kareharrizko



Eigerreko iparreko hormako bideen krokisa

[https://de.wikipedia.org/wiki/Datei:Eiger\\_Nordwand\\_Routen\\_9000.jpg#filehelbidetikhartua](https://de.wikipedia.org/wiki/Datei:Eiger_Nordwand_Routen_9000.jpg#filehelbidetikhartua)

sedimentuak jalkitzen joan zitzaizkion (orain dela 200 bat milioi urte, aro Mesozoikoan). Aipatu beharra dago Eiger mendia egun ez dagoela gune karstiko bezala katalogatua, baina Suitzako Topografia Bulego Federaleko iturrien arabera, iraganeko hainbat hondar sedimentarioen agerpena garai bateko ezaugarri karstikoen ebidentziatzat har daiteke. Sedimentu hauek bere jatorria antzinako hainbat kobazulotan izango lukete, segur aski Eozeno garaikoak (orain dela 37-55 milioi urte). Froga edo aurkikuntza hauek, ondorioz, gunea "paleokarst" bezala kataloga daitekeela iradokitzen dute (paleokarsta arroka gazteagoek lurperatu duten gune karstiko bezala definitu daiteke).

Bestalde, alpinismoaren ikuspegitik, Eiger mendiko iparraldeko aurpegiak aipamen berezia merezi du, eskalatzaileen artean aparteko izena baitu duen historiagatik. Horma honetako lehenengo eskalada saiakeretan istripu eta heriotza ugari izan ziren, gertaera hauek kutsu ilun eta kondairazko zantzuak erantsi zizkiotelarik. Egun, oraindik ere alpinisten artean berau igotzeak erronka konplexua izatearen ospea du, eskalatzaileei zailtasun eta entzute handiko bideak eskainiz.

Gorka Karapeto eta Unai Mendia Eigerreko iparreko horman izan ziren joan den abuztuaren, "Magic mushroom" bidetik modu askean eskalatzea lortuz, 600m eta 7c+ zailtasuna dituen bidea. Eskalada askea horman aurki ditzaiegun laguntza artifizialik gabe egiten den progresioa da, eskalatzaileak, bere esku eta oinak bakarrik erabiliz horman gora egiteko. Soka eta gainontzeko tresna artifizialak segur-

tasun neurri bezala bakarrik erabiltzen dira, erorketa kasuan arriskua saihesteko.

## Eiger mendiko iparraldeko aurpegiak eskalatzaileen artean aparteko izena du, lehenengo eskalada saiakeretan istripu eta heriotza ugari izan zirelako

Bihatz eskalada gunean izan gara Gorkarekin, egin zuten eskaladari buruz elkarrizketan. Berarengan ohikoa den irribarrearekin egin digu harrera, nahiz eta lanpeturik ibili.

### Ez zen Eigerreko iparrean eskalatzen zenuen lehenengo aldia, ez?

Ez, Unai 2-3 aldiz egona zegoen, eta nik beste bide bat nuen egina 2009an Ekaitz Maizekin, "Deep blue sea" izenekoa.

### Nola deskribatuko zenituzke horma eta ingurunea?

Ba zibilizaziotik gertu eta urrunaldi berran. Bertan zaudenean, gertu zauden sentazioa duzu, baina zeure barnean jakitun zara bat-batean eguraldi aldaketa batek egoera guztiz alda dezakeela adibidez. Horma bera hotza eta iluna dela esango nuke beste batzuekin alderatuz. Bestalde, esan beharra dago paraje zoragarri batean kokaturik dagoela, bertaraten diren eskalatzaile edo mendizaleak hunkitzeko modukoa.

Gorka Karapeto · ARGAZKIA: UNAI MENDIA





Gorka Karapeto · ARGAZKIA: UNAI MENDIA

### **Nola deskribatuko zenituzke horma honetako eskaladak?**

Bertan alpinismoaren historian erreferentzia izan diren bideak daude, beraien azterna nabarmena utziz. Egun, beste horma batzuetan antzeko bideak aurki daitezke, baina Eigerreko iparrak kutsu berezia du, eskalatzaileek errespetu handia diote duen historia ilunagatik. Esango nuke beste horma batzuetan antzeko ezaugarriak dituzten hainbat bide askoz gehiago errepikatzen direla, baina lehen aipaturiko zorigaiztoko ospe horrek eragina duela.

### **Nola sortu zen eskalada hau egiteko ideia?**

Printzipioz Unai beste bide bat egitea proposatu zidan, "Odissey" edo "Paciencia" bideak genituen jomuga. Bi bide hauek horma honetan librean egin diren bide gogorrenak dira, baina duten luzeragatik horman egun batzuk igarotzera behartua zaude, horman bertan lo eginez. Ikusirik denboraz oso mugatuta geundela eta eguraldi iragarpenak egun bateko tarteak bakarrik eskaintzen zigula, egun batean eskalatzeko moduko bide bat hautatzera erabaki genuen, eta "Magic mushroom" aukeratu genuen.

### **Aipatuko zenituzke bidearen ezaugarriak?**

Bideak 20 luze ditu, 600m eta 7c+ mailako zailtasuna. Orokorrean beheko luze batzuetan kalitate eskaseko haitza aurkitu genuen. Esango nuke gero eta gorago, horma bertikalago jarri ahala haitza hobea dela, goialdean eskaladaren kalitatea oso ona delarik. Gainera, bidearen bukaeran perretxiko itxura duen haitz batetik eskalatu behar da, hemendik datorkio bideari bere izena, eta mundiala iruditu zitzaidan. Perretxikoa igotzen ari ginela pasadizo bat ere izan genuen. Eskalada amaitzear ginela salto base egiten ari ziren bi pertsona egokitu zitzaizkigun, eta susto itzela eman ziguten salto egin zutenean, ez bai-kenekien gure gainean geneuzkanik... jajaja...

### **Nola eskalatu zenuten? Helburua modu askean egitea zen?**

Hasieratik asmoa hori zen, eta bideko luzeak txandakatuz joan ginen. Nik azken-bigarren luzera arte guztiak modu askean bistaz egitea lortu nuen, eta azken-bigarren luzea kateatzeko bigarren saiakera bat behar izan nuen. Beraz, modu askean egin nuen guztia, eta luze baten faltan, beste guztia bistaz egitea erdietsi nuen. Unai ia guztia kateatu zuen, baina luze bat edo beste zintzilik geratu zitzaion.

### **Zenbat denbora behar izan zenuten bidea eskalatzeko?**

Ba gutxi gora behera 12 bat ordu, goizeko 7:00etan hasi ginen eta azkar eta ondo eskalatu genuen. Igoera amaitzean, egindako eskaladarekin pozik eta asebetarik sentitu ginen.

### **Berriro bueltatuko zinateke beste bideren bat egitera horma honetara?**

Noski! Badut asmoa berriro bueltatzeko, ez dakit noiz baino ziur beste bideren bat egitera joango naizela.

**Bidea eskalatzeko 12 bat ordu behar izan genituen, goizeko 7:00etan hasi ginen eta azkar eta ondo eskalatu genuen. Igoera amaitzean, egindako eskaladarekin pozik eta asebetarik sentitu ginen**

**Bide honetaz gain, ia aldi berean Ilarduian 9a bat egitea erdietsi zenuen, beraz esan genezake sasoi betean egon zarela. Nola**

### uztartzen duzu kirol eskaladako eta hor- metako bide luzeak eginez hain maila altua mantentzea?

Ni berez kirol eskalatzailer bezala def-  
nitzen naiz, baina hormetan bide luzeak  
eskalatzea ere asko gustatzen zait. Esango  
nuke, askotan sentitu izan dudala bi eskala-  
da mota hauek elkarri ekarpena egiten dio-  
tela, hau da, onuragarria dela kirol eskaladan  
maila altua izatea hormetan gogor estuzeko  
eta alderantziz. Beraz, bi disziplinen arteko  
uztartzea natural eta plangintza zehatzik  
gabe egiten dut, egutegiaren, denboraren  
eta motibazioaren arabera.

### Asko kostatu zitzaizun Ilarduia bidea egitea?

Uste baino gutxiago, egia esan. Orain dela  
pare bat urte probatu nuen, eta gustatu egin  
zitzaidan, baino ez nuen benetako saiaker-  
arik egin. Aurten berriro probatu eta sen-  
tsazio onak izan nituen, motibaturik negoen  
eta saiatzea erabaki nuen. Aitortu beharra  
daukat pentsatu baino arinago iritsi nintzela  
katera, hirugarren egunean kateatzea lortu  
bainuen.

### Ba al duzu proiektu zehatzik epe labur/er- tainean buruan?

Beno, kirol eskaladaz gozatzen jarraitzea  
orokorrean, eta 9a mailako bideak egiten ja-  
rraitzea edo 9a+ bat egitea, zergatik ez! Hala  
ere, kontuan hartu beharko dut urteak ere au-  
rrera doazela... jajaja...

Proiektu edo amets bat zehaztu behar-  
ko banu, kirol eskaladan Katalunian dagoen  
Siurana eskolako "La Rambla" bidea esan-  
go nizuke adibidez. Horma luzeetan berriz,  
oraintxe bertan ez dut buruan bide zehatzik  
epe motzean. Maila honetako bideak egiten  
jarraitzea gustatuko litzaidake, hormetan ere  
gogor estutuz.

## Buruan proiektu zehatz batzuk izan arren, helburua orain arteko mailan mantendu eta eskaladaz gozatzen jarraitzea da

Jarraian, Gorkak eginiko bide aipagarrie-  
netariko batzuk zerrendatu dira, eskalatzailer  
moduan lorturiko hainbat lorpen aurkezteko  
asmoz. Oso gazte zelarik erreferentziak zen-  
bait bide eginak zituen Araotzen, eta urte gu-  
txitan izugarriko progresioa izan zuen zailta-  
sunari dagokionez:

| Bidea             | Zailtasuna | Eskalada eskola | Data |
|-------------------|------------|-----------------|------|
| Blue jeans        | 8a         | Araotz          | 1998 |
| Sandaili          | 8a+        | Araotz          | 1998 |
| Parva naturalia   | 8b         | Araotz          | 1999 |
| Agurra eta Egurra | 8b+        | Araotz          | 2000 |
| Mala Vida         | 8c         | Araotz          | 2000 |

Urte batzuen buruan, zailtasunean jauzia egin eta goi-mailako hainbat bide egin zituen, egun ere maila berean diharduelarik:

| Bidea           | Zailtasuna | Eskalada eskola | Data |
|-----------------|------------|-----------------|------|
| Honky Mix       | 8c+        | Araotz          | 2002 |
| Tas tas         | 8c+/9a     | Baltzola        | 2004 |
| Sistematik lhes | 9a         | Aizpun          | 2009 |
| Esclatamasters  | 9a         | Perles          | 2011 |
| Begi Puntuari   | 9a         | Etxauri         | 2012 |
| Zeledon         | 9a         | Ilarduia        | 2014 |
| Estado Critico  | 9a         | Siurana         | 2015 |
| Supernowa       | 9a         | Vadiello        | 2015 |
| Harroputza      | 9a         | Ilarduia        | 2019 |

Bistaz ere hainbat bide gogor egin izan ditu, 8a+/8b zailtasunekoak besteak beste. Agian, hauen artean azpimarragarriena Kataluniako Montsant eskalada eskolan eginiko *Falconeti* bidea izan daiteke, 8b+ mailakoa.

Bestalde, horma luzeetan ere erreferentziak zenbait bide ditu eginak, hurrengoak izan dai-  
tezke aipagarrienetarikoz batzuk:

| Bidea                | Zailtasuna | Luzera | Horma         |
|----------------------|------------|--------|---------------|
| Zararusta            | 8a         | 500m   | Ordesa        |
| Pilar del Cantabrico | 8a+        | 500m   | Picu Urriellu |
| Orbayu               | 8c         | 500m   | Picu Urriellu |
| Magic Munshroom      | 7c+        | 600m   | Eiger         |

